

«Klonazioari objektzio moral bakar bat ikusten diot»

A. I./DONOSTIA.- Giza klonazio erreproduktiboa da, egun, zientziaren zalan-tzen artean zailenetakoa. Evandro Agazzik gogoeta ugari egin ditu aferaren inguruan.

■ Zein irizi duzu giza klonazio erreproduktiboaren inguruan?

Inolako emoziorik gabe aztertu behar da afera, eta klonazioak kalterik eragiten duen ikusi behar da. Nik moralki objektzio bakar bat —ez oso larria— ikusten diot: gizaki orok du eskubidea bere egitura genetikoak ez inoren borondatearen arabera erai-kia izateko, eta giza klonazioak hautsi egiten du hori. Gure izaerarekin ez gara gustura sentitzen askotan, baina ezin diogu inori errua bota, patuari lepora diezaiokegu, edo Jainkoari, fededunak bagara... Imajina dezagun, ordea, klonatutako gizaki bat: gurasoei egitura genetiko baten arabera sortua izatea lepora diezaieke. Horretaz aparte giza klonazioan ez dut objektzio moral handirik ikusten.

■ Ondo ikusiko zenuke klonazioa saiatzea?

Nik uste dut galdera bat egin behar dugula: Zer erabilera eman dakioke giza klonazioari? Nik dakidala ez dago galdera horrentzat erantzun handirik; orduan, ez diot zentzu handirik ikusten.

■ Nolanahi ere, irizpide moralak ezartzean beti izango dute indar gehiago boteresuenek, esaterako, interes ekonomiko jakin batzuk dituzten herrialde aberatsek...

Beno, interes ekonomikoak, berez, ez dira inmoralek. Moralak balio asko daudela onartu behar du, eta gauza asko bila daitezkeela bizitza honetan. Plazerra bera, esaterako, balio bat da, eta balio garrantzitsuak dira, halaber, justizia, adiskidetasuna, aberastasuna... Ez da txarra horien alde egitea, horien bila jardutea. Arazoa balio horietako batek maila absolutua lortzen duenean agertzen da, eta gainerakoak zanpatzen eta bere nahietara moldatzen dituen... Orduan agertzen da inmoralitatea. Horregatik oso garrantzitsua da gizarte

balio absolutu horien kontrako kontzientzia zabaltzea.

■ Zientzia arautzeko irizpide moralak oro har gizarteak ebatzi behar dituela diozu. Horretarako gizarteak zientziaren munduko informazioa behar du. Zientziaren eta gizartearen arteko zubia aski sendoak al dira?

Komunikazio arazo handia dago. Erabakiak elkarkidetzan hartzea da kontua. Horretarako, bi baldintza ezibestekoak dira: batetik, informazioa behar da, eta, bestetik, erabakigunee-tan esku hartzeko aukera. Bigarren baldintza honek belaunaldiz belaunaldi heziketa politiko bat ematea eskatzen du, gizarteak erabakietan esku hartzen ikasteko eta horretarako aukera izateko. Informazioaren baldintzan, berriz, esku-hartze zuzena izan behar lukete zientzialariek. Beren jardunaren berri emateko ardura dute, baina gutxitan burutzen dute. Zientzialarien egitekoen artean gutxitan hartzen da aintzakotzat zientziaren dibulgazioa. Konprometituagoak sentitu behar lukete alor horretan.

■ Eta agintariak ere bai, ezta?

Bai. Izan ere, zientziaren dibulgazioa publikoki finantzatzea oso garrantzitsua iruditzen zait, aferaren baten inguruan iritzia eman behar denean iritzi hori independentea izateko. Egiteko hori enpresa pribatuaren esku geratzen bada oso zaila izango da argibide egokiak lortzea, interes jakin batzuei erantzun go baitie. Horregatik herrialde orotan ikerkuntzarako egitura publiko bat lortu behar da, eta ondo ordaindua... Ezinbestekoa iruditzen zait hori.

■ Zientziaren zein dizi-plinak sortuko ditu zalantza etikoa gehien?

Lehen mailan biomedikuntzarekin lotutako dizi-plinak jarriko nituzke, eta ondoren, bigarren mailan fisikarekin harremanetan daudenak, energia lortzeko bide berriak lor baititzakete, egun imajina ere egin ezin daitezkeenak. Baina egun kezka handiena eragiten dutenak biomedikuntzaren alorrekoak dira, gizakia zuzenean eragiten baitute. Dena den, beste zientzia batzuk ere badaude, ondo pentsatzen jarritz gero, arriskutsuak izan daitezkeenak. Pentsa, esate baterako, psikologiarekin lotutako zientziak. Psikofarmakoekin pertsonen nortasunean zuzen-zuzenean eragin daitezke... Ildo horretan zalantza konplexuak sor daitezke, baina oraindik ez gaude horiei erantzuteko prest.

LABURAEAN

OSASUNA

Minbiziak jotakoei soia ugari jateak mesede egin diezaiekela iradoki dute

Ameriketako Estatu Batuetako John Hopkins Unibertsitatean burutu berri duten ikerketa baten arabera soia ugari jateak mesede egin diezaieke minbiziak jotakoei. Oinazea izaten da maiz eritasunaren sintoma, eta zenbaitzutan sendagileek ez dute jakiten nola baretu, edo aukera bakar bat egoten da: morfina. Saguarekin egindako ikerketetan, ordea, soia arrunt mesedegarria dela ondorioztatu dute, eta, akaso, aurki min handiak jasan behar izaten dituzten pertsonen laguntzeko erabili ahal izango dela.

IKERKUNTZA

Zeliakoen gaitza atzemateko proba bat ikertzen ari dira

Hesteetako gaitz larria izaten dute zeliakoek, glutena —garian, zekalean eta beste zenbait laboretan ohikoa den proteina— duten elikagairik ezin baitute jan; izan ere, janez gero oso gaixo jartzen dira. Eragozpen handi bat badu, gainera, eritasunak: diagnostikatzen zaila da. Nolanahi ere, Kubako Ingeniaritza Genetikoko Zentroko ikertzaileek esan dutenez eritasuna atzemateko proba bat ikertzen ari dira. Azaldu dutenez, proba horrekin, odoleko lagin bat ikertzen atzeman daiteke gaitza, hamar minutuan.

IKERKUNTZA. Torontoko ikertzaile talde batek aurkeztu du arazoa

Aireko kutsadurak odol hodiak kaltetzen ditu

Estutu egiten dira eta arazo kardiobaskularren eragile izaten dira

Erredakzioa | DONOSTIA

Torontoko Unibertsitateko (Kanada) ikertzaile talde batek plazaratu berri duen ikerketaren arabera aireko kutsadurak odol hodiak kaltetzen ditu, eta ondorioz arazo kardiobaskularrak izaten dira maiz. Zientzialariek azaldu dutenez kutsaduraren ondorioz odol hodiak estutu egiten dira eta odolaren isuria behar baino motelagoa eta zailagoa izaten da gorputzean barna. Horrek bihotzaren jarduna eragozten du.

Ikertzaileek ondorio horretara heltzeko 25 lagun ikertu dituzte. Guztiek aireko kutsaduran ohiko diren partikula gaiztoak arnastu zituzten, eta ozonoa ere bai. Bi orduz jardun zuten gai horiek arnasten. Antza, aski izan ziren. Beren odol hodiak %2-%4 estutu ziren. Torontoko ikertzaileen aburuz gai kutsakorrek pertsona erien zein osasuntsuen hodiak kaltetzen dituzte.

Autoetako ke zikina

Ikerketan esku hartu zuten pertsonen arnastutako partikulak edozein hiri handitan direnen pareko direla azaldu dute zientzialariek, autoetako ke zikinaren osagai ohikoa direla. Horregatik ikerketa aski argigarria dela esan dute, eta aintzakotzat hartu behar dela.

Azaldu dutenez partikula horiek pertsona osasuntsuen ezin dute bihotzeko arazorik eragin. Erientzat, ordea, arriskutsuak izan daitezke.



REMY DE LA MAUVINIÈRE / AP

Pariseko Eiffel dorrea kutsadurak estalita.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak diruz
lagundutako egunkaria